

Kontu Batzordearen balantzea 2020-2024

1. Kontu Batzordearen izaera eta osaera

Estatutuen 25. artikulua honako hau dio Kontu Batzordea dela eta:

1. Kontu Batzordea barne-organo fiskalizatzailea da, eta kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, EH Bilduren baliabide ekonomikoen eta ondare-baliabideen erabilera egokia eta gobernu-organoek egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna bermatzen ditu.
2. Urtean behin, Hegoaldeko Mahai Politikoak, Kontu Batzordearen oniritziarekin, aurreko ekitaldiko ekonomia eta finantza-txostenak eta kontu-txostenak aurkeztuko ditu Batzar Nagusian, onar dai-tezen.
3. Kontu Batzordea Biltzarrak hautatutako hiru pertsonaz osatuta egongo da lau urteko aldi baterako, eta organo horren aurrean baino ez du erantzungo. Hala ere, txostenak egin beharko ditu Batzar Nagusiak eskatuz gero.

2. Kontu batzordearen osaera 2021 – 2024 aldian

Manuel Fraile, Gorka Ortiz de Guinea eta Maider Otamendi

3. 2021 – 2024 Jarduketak

2021an hasi zen Kongresu aldian EH Bilduk Kontu Batzordeari beharrezkoa izan duen informazio kontable eta fiskala helarazi dio, Kontu Batzordeak bere eginbeharra burutzeko beharrezko informazio guztia jasotzea bermatuz. Kontu Batzordea eta EH Bilduko Finantza taldearen arteko informazio fluxua eta koordinazioa mantendu da Kongresualdi honetan.

URTEKO KONTUAK

Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko urteko kontuak dagokion epean aurkeztu ditu EH Bilduk, eta hauek aurkeztu ostean urteko kontuak webgunera igotzeko betekizunarekin bete du, gardentasuna bermatuz. Kontu Batzordeak urteko kontuen inguruko informazioa eskuragarri izan du une oro.

Kongresualdi honetan, Madrilgo Kontu Auzitegiak 2017, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldiak fiskalizatu ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzari dagokion informe fiskala webgunera igota dago.

HAUTESKUNDE KONTABILITATEA

Honez gain, 2023 eta 2024 urteetan, hauteskundeak burutu dira. Hauteskunde bakoitzak bere kontabilitate propioa eta araudi propioa du. Hauteskunde bakoitzeko kontuak Madrilgo Kontu Auzitegiari, Nafarroako Kontuen Ganberari zein Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokion epean aurkeztu zaizkio, beharrezko informazio guztia barnebilduz.

EH Bilduk bere ohiko kontabilitatean, eta beraz, 2023ko eta 2024ko urteko kontuetan integratu ditu hauteskundeetako kontabilitateak.

Batzar Nagusietako hauteskundeei lotuta, HKEE-k hauteskunde-gastuaren muga gainditu ahal izana jakinarazi zion EH Bilduri 2023an. Ohartarazpen hori HKEEren interpretazioaren akats teknikotzat jo zuen EH Bilduk, prozesu horiek arautzen dituen legedi autonomikoan dagoen hutsune legalaren aurrean, eta, beraz, arau-hauste administratibo bat dela alegatu zuen. Kontu Batzordeak bere ebazpenean ere berresten du EH Bilduk legediaren hutsunearen inguruan egiten duen irakurketa.

Ildo honi jarraiki, EH Bilduk bide administratiboan defentsa eskubidea egikaritu du. Edozein kasutan, Madrilgo Kontu Auzitegiak zehapen-espedientea irekiera jakinarazi dio EH Bilduri.

AURREKONTUAK ETA BALANTZE EKONOMIKOA

Ikasturte politikoen aurrekontuei dagokionean, EH Bilduk egindako aurreikuspenak bete dira, beraz, EH Bildu bere gastu finkoei zein dinamika politikotik eratortzen diren gastuei aurre egiteko gai izan da ikasturte politiko bakoitzean. Kontu Batzordeak aurrekontuen eta beraien bilakaeraren inguruko informazioa eskuragarri izan du.

EH Bilduk ez du zorrik ez instituzio publikoekin, ez hornitzaileekin, ez langileekin ezta kreditu erakundeekin ere, osasun ekonomiko ona mantendu du urte hauetan zehar.


Inbertsioei dagokionean, EH Bilduk lehen aldiz ondarea jabetzan duela aipatu behar da. Bi egoitza erosi ditu, bata Iruñean Kale Berrian eta bestea Gasteizen Postas kalean. Biak ala biak, EH Bilduk zituen inbertsiorako baliabide ekonomikoetara egokitutako erosketak izan dira, horrek EH Bildu hirugarrenekin ez zorpetzea ekarri duelarik.

KONGRESUALDI BERRIA

Kongresualdi berrian Kontu Batzordearen eta EH Bilduko Finantza taldearen arteko harremanakegonkortzen jarraitu behar du, EH Bilduren bilakaera ekonomiko finantzarioak orain arte moduan jarrai dezan.



Manuel Fraile



Maider Otamendi



Gorka Ortiz de Guinea